

Hitza^zea

Euskal itzultzaile baten bizimodu atsegina

IÑAKI MENDIGUREN



Egia esateko, niri proposaturiko gaiak honela zioen: «Itzultzaile baten ajeak, ezintasunak, zailtasunak, editoreekin koordinazioa...», baina esan nuen neure artean: «Zer? Berriro aieneka eta kexuka euskal itzultzaile bat?». Bai zera, ezta pentsatu ere!

Bakoitzak berari doakion bezala, bere betaurrekoez, ikusten du mundua, eta ni, arazoak arazo, oso gustura nago neure lan-, ogi- eta bizi-bidearekin. Bestalde, ohartarazten dut neure izenean baino ez dudala hitz egingo, ez naiz-eta bestetarako gai. Badakit euskal itzultzaileon



lan-egoera askotarikoa eta oso heterogeneoa dela, baina ez dakit gehiengo zertan dabilen, ezta ere bizi dituzten argi-ilunak eta gazi-gozoak. Nik neuk autonomo edo *freelancer* gisa, telelanean, itzulpen komertzialak eta literarioak eginez daramatzat 20 urte baino gehiago: lehen motakoak enpresa, erakunde eta horrelakoentzat; bigarrenak argitaletxeentzat, batez ere.

Hitz egingo dut, bai, itzultzaile honek bere lanean pairatzen dituen aje, zailtasun eta ezintasunez... Baina nola kexatuko naiz asko, zeharo maitemindurik baldin banago neure lanbidez? Ala ez da egia pribilegiatu hutsa naizela? Lanbide honi esker gustuko lanean ogibide txukuna ateratzen dut, etxetik lan egiteko aukera dut, malgutasun handiz, bururik gabe (tira, burua... horixe behar izaten dut, baina «jefe»rik ez), ordu-tegia neure komenientziara moldatuta, naturaren erdian (aurrean Aizkorri, ezkerrean Txindoki, eskuinean Irimo eta atzean Izazpi ditudala)... Eta konpainia onean: Labrador eme goxo batekin, eta bi katurekin... Ene, barka, emaztea ahaztu zait! Bera ere azken 7 urteotan itzultzaile baita. Beraz, euskarazko eta ingelesezko errieta batzuk gorabehera, lankidetzaren emankorrean aritzen gara elkarrekin. Zer gehiago eskatuko diot, bada, lanbideari?

Haur eta Gazte literaturan, eta hori da bereziki *Behinola*-ren eremua, gaiak polit-politak izaten

dira, zoragarriak. Normalean euskaratzen den haur-literatura ona edo oso ona izaten da; alegia, klasikoak direlako edota, berriak izan arren, beste hizkuntzaren batean jada beren balioa eta arrakasta frogatu dutelako ekartzen dira gurera, eta hori itzultzea gozamen hutsa da; nik, behintzat, haurtzaroan, etxean dirurik ez-eta, ezagutu ez nituen ipuin asko gero itzulgai izan ditut. Gaur egungo materiala ikusita, berriro ume izateko gogoia sentitzen dut maiz. Itzulpen komertzialak lehorragoak izan ohi dira, noski.

Hizkuntza aldetik ere, Haur eta Gazte literaturako itzulpenetan jada ez dago arazo handirik, nahiz eta espainiera ez den beste hizkuntza batzuetatik zuzenean euskarara itzultzeko hiztegiek oraindik ez eman beharrezko mailarik, aurreratu dela ukatu gabe. Itzulpen komertzialetan, itzulgaiak oso espezializatuak direnean, oraindik badira arazoak gaztelanietatik euskarara ere (hor dugun arren Euskalterm-en altxorra!).

Argitaletxeetako lanak, gainera, normalean ez dira presakakoak izaten, eta patxadaz egiteko modua egoten da. Koordinazioa? Argitaletxea Euskal Herrikoa bada, arazo handirik ez, hurbiltasun fisikoak ere alde jokutzen baitu. Gaur egun argitaletxe gehienetan testuaren jarraipen zorrotza egiten da, eta eskertzekoa da bertako zuzentzaileen (esker gaiztoko) lana; nire itzultzaile-ibilbidean oso arazo gutxi izan dut argitaletxeekin.

Badut eskarmentu luze samarra Madrileko etxe batekin ere: honekin orokorrean testu gutxiko irudi ederreko jostailu-liburu koloretsuak egiten ditut, eranskailuak, imanak, puzzleak eta abar osagai direla. Askotan koedizioak dira gaztelaniaz, euskaraz eta katalanez. Eta hona hemen bitxikeria: Ezkioko tontorrean euskaratutako testuak... non inprimatzen direla uste duzue? Txinan! Eta handik produktua ekarri eta hemen saltzea, dirudienez, negozio hobea da hemen bertan inprimatzea baino. Hortik kontuak atera zenbat ordainduko zaien han esku-langileei! Ai, globalizazioaren bide ilunak! Aitortzen dut profesional onak eza-

gutu ditudala, egiten duten lana (eta produktua: liburua) maite duten horietakoak, baina egoera hauetan koordinazioa ez da beti baliorik zainduena izaten, eta, salbuespenak salbuespen, ezin ahaztu ere txinera bezain arrotza zaiela madrildar gehieni «*el vasco*».

Haur eta Gazte literaturako euskal itzulpen-gintzaren ikuspegi idiliko samar honek badu arazotxo bat behintzat, merkatuarena alegia, eta horren ondorio da ordainketarena. Era honetako itzulpenetatik nekez bizi daiteke euskal itzultzailea. Batetik, ez dago behar hainbat lan kopuru, eta bestetik, egiten dena ez da asko ordaintzen; eta hori esatea ez beza inork kexutat har, baizik eta geure tamainaren eta errealitatearen zentzua (nire ustez, euskaldunok askotan galtzen duguna) behar dugula esan nahi dut. Euskal merkatuaren tamaina aski txikia da, eta gutxi gorabehera imajinatzen dut itzultzen dudana liburu bat zenbat salduko den euskal merkatuan, eta hortik ezin daitekeela negozio handirik egin, eta itzultzaileari dagokion zatia ere ezin dela oso handia izan... Alegia, eskas samar ordaintzen zaidanean, ez dut uste inor nire bizkar negozioa egiten ari denik. Nori berea. Eta «asko ez dela ordaintzen» diodanean, esan nahi dut diru aldetik, eta sartutako denbora kontuan izanda (haur –eta gazte– literaturakoak bereziki mimatu eta zaindu beharrekoak baitira!), askoz errentagarriagoak direla itzulpen komertzialak argialetxetako literatura-itzulpenak baino.

Orduan, zer? Ba, osabidezko sistema bilatu behar oreka-puntu batera iristeko, eta horixe da niretzat bizi dudana gogobetetasunaren beste ardatzetako bat. Prosa eta poesia edo On Kixote eta Santxo Panza elkartzeko: hau da, itzulpen mota batzuek diru erraz samarra ematen dute, gozamen «prosaikoagoa»; beste itzulpenek –*Behinola*-ren xede izan ohi diren horiek– diru gutxiago, baina gozamen «poetiko» eta estetiko handiagoa. Maila oneko ipuin edo nobelatxo eder bat edo Harry Potter itzultzeak badu enpresa baten iazko Oroitadazia itzultzeak inola ere ematen ez didan atsegi-

na. Eta normalean beste patxada batez egiten dira, itzulpen komertzialekin alderatuta. Beraz, oso egokiak dira lan-giroz aldatu nahi duzunerako (ez nituzke egunean 8 ordu administrazio-testuekin borrokan eman nahi!) edo hutsuneak betetzeko edo bihotzondoari gozalditxo bat emateko, alegia, lur-arras ibili orde zgoraxeago hegan egiteko...

Euskal merkatuaren txikitasunak beste ondorio batzuk ere baditu, eta horietako bat izan daiteke beste herrialdeetan argitaratuaren jarraipena egiteko, eskubideak negoziatzeko eta azken batean geureganatzeko ahulezia, azpiegitura urria, etab. Baina hori ere erlatiboa da. Alegia, daukagunaz bertan goxo egin eta konformatu, ez; baina komeni da batzuetan duela 40 urte zer geneukan gogoratzea. Ikaragarri aurreratu da. Euskaraz sortutakoa beste hizkuntza batzuetara itzuli eta esportatzea ere ez da indartsu daukagun alorra, eta horretarako ez dut uste euskal sorkuntzaren maila denik arazoa. Uste dut areago dela saltzaile lotsati edo alfer samarrak garela.

Bukatze aldera, itzulpengintzaren gizarte-egaztagaz bi hitz. Itzultzailearena lan iluna eta grisa omen da, ez omen du jendeak ezagutzen eta aitortzen gure lana... Hori nondik ikusten den. Gure lana bi hizkuntzen arteko zubigintza da, eta hor botere eta erantzukizun handi samarra daukagu. Pentsa! Gai gara jatorrizko testu on bat kakaztu eta dezente hondatzeko, edo gai gara beste hizkuntza batean ederki eta dotore kontaturikoa euskarara txukun, gozo, aberats aldatzeko... Eta



haur edo gaztetxo bat hori gustura irakurtzen ikustea, ez al da, bada, nahikoa errekonozimendu eta esker on? Itzulpengintza zeregin automatikoa omen da: makinak horrek frogatzen! Gaur gaurkoz, eta itzulpen literarioetan areago, itzulpenak sortze-lan eta arte-lan dezente izaten du. Sortzailea ezagutzen omen da, eta itzultzailea ez! Ba, begira, gure lanak izan dezakeen errekonozimendurik onena ez da sariak



ematea edo prentsan behin eta berriro gure izena agertzea («ezti» horiek dastatu ditut, baina ez dira inondik ere nire atseginbiderik gozoenak izan), baizik eta lanbide honen garrantziaz ohartzea, eta hori hobeto egiteko tresnak eta baliabideak jartzea: itzultzaileon hasierako eta bizi arteko

prestakuntza hobetzea, hizkuntzaren ikerketa eta garapenerako erakundeak eta proiektuak laguntzea (ezin aipatu gabe utzi Uzeik, Elhuyarrek, EHUko Sail batzuek... egiten duten lana) eta abar. Intsentsu-lurrina atsegin du gure egoak, baina kea goratu eta laster desagertzen da, eta aukeran hobe hemen behean eguneroko bizimodu duin eta eroso samarra ahalbidetzea... Ez naiz ari pribilegioak eskatzen. Lur gaineko gizaki orok behar luke gutxieneko hori, baina asko, asko dira itzultzaileon lanbidea baino ahaztuagoak munduan.

Lost in translation? Ba, nik neuretzat nahi nukeen epitafioa hau da: *Hemen datza itzulpengintzan ere bere bidea aurkitu zuen bat.* Amen.

Iñaki Mendiguren: La alegre vida de un traductor de euskera

En «La alegre vida de un traductor de euskera» este traductor habla de su gozosa experiencia profesional, pues se dedica freelance y dedicación plena a la traducción tanto literaria como comercial, fundamentalmente del inglés y español al euskera. Habla de los obstáculos y dificultades que encuentra en su tarea, pero fundamentalmente de las ventajas y privilegios que le proporciona el oficio, del que está enamorado. La traducción de literatura infantil y juvenil es fuente de especial placer y dicha, por la calidad y belleza de los textos, por el estado de la normalización lingüística a este nivel, por los generosos plazos de trabajo, etc. Y en el otro lado de la balanza considera las consecuencias del relativamente reducido mercado de la literatura vasca, una de las cuales es la imposibilidad de vivir exclusivamente dedicado a esa clase de traducciones. El autor afirma ser mucho más rentable económicamente la traducción comercial, aunque no le proporcione ni de lejos el placer de la traducción literaria. En resumen, aboga, como medio de vida, por la complementariedad y el equilibrio entre ambos tipos de textos. Y termina con algunas reflexiones sobre el reconocimiento social de la actividad traductora.

Iñaki Mendiguren: The Contented Life of one who Translates into Basque

In «Euskal itzultzaile baten bizimodu alai» («The Contented Life of one who Translates into Basque») the translator in question speaks about his enjoyable profession, since he devotes himself freelance and full time to literary and commercial translation, mainly from English and Spanish into Basque. He refers to the obstacles and difficulties that crop up in his work, but deals mostly with the advantages and privileges offered by the job, which he is in love with. Translation of literature for children and teenagers is a source of particular pleasure and contentment, owing to the warmth and beauty of the texts, the normalisation of the [Basque] language at this level, the generous deadlines for the work, etc. On the downside he reflects on the consequences of the relatively limited market for Basque literature, one of which means that it is not possible to make a living exclusively out of this kind of translation work. The author asserts that commercial translation is much more profitable, even though it does not provide anything like the amount of pleasure that literary translation does. In short, as a way of making a living, he advocates combining both kinds of texts in one's work. And he concludes with some reflections on the social recognition of translating.



Egin zaituz Galtzagorri Elkarteko bazkide

1. Jarraian aurkezten dugun fitxa bete eta ordainketa-agiriarekin batera, gure helbidera bidali:

Galtzagorri Elkartea

Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943471487

behinola@galtzagorri.org — www.galtzagorri.org

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....Posta-kodea:.....

Telefonoa:.....faxa:.....

e-maila:.....

Ogibidea:..... lantokia:.....

2. Urteko bazkide-kuotaren ordainketa egin (40 €)

Galtzagorri Elkartearen kontu-korrontean dirua sartuz:

CAJA LABORAL – EUSKADIKO KUTXA

sukurtsala: Loyola 15 (20.014 Donostia)

kontu-zenbakia: 3035 0242 6 8 242 0 00247 1

Galtzagorri Elkarteko bazkide guztiek doan jasoko dituzte Elkartearen argitalpen guztiak.

Behinola aldizkariaren
argitalpena 2009ko maiatzan egin zen Iruñeko
Ona Industria Gráfica inprimategian.

